



TENPERATURA ALTUETAKO EGOERARAKO PREBENTZIO PLANA. EAE – 2008

SARRERA

2003ko abuztuan Europa guztia astindu zuen bero boladak nabarmen erakutsi zuen bertako populazioa zaugarria dela tenperatura altuen aurrean, eta herrialde bakoitzeko sistema sanitario eta sozialak ez zeudela prestatuak aipatu larrialdiari era egokian eta azkar erantzuteko. Europa nahiko aspaldidanik era aski onargarrian prestatuak zegoen hotz boladei aurre egiteko, baina ez zen inoiz planteatu seriotasunez bero boladei aurre egiteko neurririk edo protokolorik ezartzea, izan ere, zeuden aurrekariak ikusirik, ez zen uste populazioaren osasunerako arrisku larri bat suposa zezaketarik.

Baina ezohiko bero bolada hark, hainbat egunetan mantendu ziren tenperatura minimo oso altuekin eta tenperatura maximoak ere ohikoak baino askoz altuagoak zirela, gorakada nabarmen bat eragin zuen heriotza tasan, aurreko urteetako denboraldi berean erregistraturikoarekin konparatuta. Hilkortasunaren gorakada nabarmenagoa izan zen Frantzia, adibidez, espainiar Estatuan edota Euskal Autonomia Erkidegoan baino.

Bero bolada baten aurrean nozituriko zaugarritasun esperientzia negatibo haren ondoren, europar sanitate publikoa, eta Euskadikoa ere bai, hainbat neurri eta protokolo ezartzen hasi zen etorkizunean gerta litezkeen antzeko egoerei erantzun prebentibo-asistentzial azkar eta eraginkorra eman ahal izateko.

Populazioaren zaintzan erantzukizuna eta eskumena daukaten beste Instituzio sozial batzuen inplikazioa eta lankidetzaren ezinbestekoak dira herritar bizitza garatzen den bilbe nahasi guztia estaltzeko.

Ekimena Osasun Sailari badagokio ere, ezinbestekoa da, aurreko urteetan frogaturik geratu den bezala, beste zenbait Sail edo Unitateren partaidetza, plan honen barruan egitea aurreikusten den guztiari zentzua eta edukia emateko. Era berean, beharrezko deritzogu berme instituzional guztia edukiko duen koordinazio bat ezartzeari, informazio guztia jaso eta analiza dezan, larrialdi egoeraren gestiorako eta komunikazio politikarako lekuan lekuko estrategia egokiak ezar ditzan.

Oraingoz ezinezkoa bada ere datorren udan zer nolako tenperaturak jasan beharko ditugun auresatea, halere 2003ko bero boladaren esperientziak gomendagarri bihurtzen du hainbat neurri hartzea, orduko inguruabar meteorologikoak berriz ere errepikatu litezkeelako.

Pertsona bat kanpoko tenperatura altuegia jasaten denbora luzez eta babesteko inolako aukerarik gabe dagoenean konplikazio larriak noitzeko arriskua dauka, erregulazio termiko faltagatik. Bero handiegiko denboraldiek erraztu egiten dute zenbait patologiarene agerpena edo areagotu egiten dituzte lehendik bazeuden beste batzuk, hipertermiarene ondorioz, batez ere pertsona gaixobera edo arrisku handienekoen artean.

Osasunaren ikuspegitik begiratuta, hainbat elementu daude kontuan eduki beharrekoak:

A.- Pertsonak – Arrisku taldeak

Temperatura altuegiak noitzeak eragin ditzake hainbat osasun arazo, adibidez: karranpak, deshidratazioa, intsolazioa, bero kolpea (ondorio multiorganikoekin, besteak beste, ibiltzeko segurtasun falta, konbultsioak eta koma).

Temperatura altuen aurrean bereziki zaugarritzat hartzen dira honako populazio talde hauek:

- 65 urtetik gorako pertsonak, batez ere 80 urtetik gorakoak.
- bularreko haurrak eta oro har 4 urtetik beherakoak.
- oroimen arazoak, asaldu mentalak edo portaera eragozpenak dituzten pertsonak, ulertzeko eta orientatzeko arazoak dituztenak edo beren eguneroko bizitzan beste norbaiten laguntza behar dutenak.
- zenbait medikamentu hartzen ari diren pertsonak, adibidez: lasaigarriak, antidepressiboak, psikotropoak, antikolinergikoak, diuretikoak eta hipertentsioaren aurkako batzuk.
- tipo hauetako gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak: kardiobaskularrak, garun hodiedakoak, obesitatea, desnutrizioa, diabetesa, Parkinsonen gaixotasuna, arnas gutxiegitasuna, giltzurrun gutxiegitasuna, gaixotasun baskular periferikoak, Alzheimerren gaixotasuna edo gaixotasun erlazionatuak.
- pertsona sukarberak edo patologia akutuak dituztenak.
- substantzia psikoaktiboak (alkohola eta drogak) kontsumitzen dituzten pertsonak.
- lehenago ere berora egokitzeko eragozpenak izan dituzten pertsonak.

Lan edo bizi baldintza batzuek ere areagotu ditzakete beroarekin erlazionaturiko arriskuak:

- bizilekuan hozte sistemarik ez edukitzea
- hozteko zailtasunak diruen bizilekua (eraikineko azken solairua, teilatupea, beirazko baoak, isolatze txarrak, etab)
- intentsitate handiko kirol praktika
- neke handiko lan fisikoak (kanpoko eskulanak, etxegintza, etab.)

- beroa sortzen duten lan prozesuak (burdingintza, okindegia, tindategia, etab.)
- bakardade soziala

B.- Elikagaiak

Elikagaiak tenperatura baxuan mantenduz gero, alde batetik, mikroorganismoen hazkuntza atzeratzen da eta, ondorioz, elikapen toxiinfekzioen agerpena mugatzen da eta, bestalde, elikagaien kalitate nutrizional eta organoleptikoak kontserbatzea lortzen da. Hotz kate honen eraginkortasuna, noski, hozte tenperaturaren menpe dago, baina bai eta hozte tenperatura hori gorabeherarik gabe mantentzearen menpe ere.

Temperatura altuko aldiak direla eta batzuetan zail gertatzen da hotz katea mantentzea; horregatik, areagotu egiten dira elikagaiekin erlazionaturiko arrisku mikrobiologikoak. Arrisku hauek lotura handiagoa izaten dute elikagai jakin batzuekin edo zenbait etxetako praktika okerrekin.

C.- Medikamentuak

Zenbait medikamentu erreakzionatu egiten dute organismoak kanpoko tenperatura altura egokitzeko dauzkan mekanismo batzuekin eta eragin dezakete beroaren aurreko esposizio luzeegi edo intentsoegiak induzituriko egoera patologiko larriak areagotzea.

Era berean, tenperatura altuen esposizioan denboraldi luze edo ez hain luzeetan edukitzeak, izan dezake bere eragina medikamentuen kontserbazioan, batez ere gordetzeko eta kontserbatzeko baldintza bereziak eskatzen dituztenetan.

EAerako PREBENTZIO PLANA

1.- Informazio eta zainketa sistema

1.1.- Informazio meteorologikoa: Euskalmetek egunero bidaliko du Osasun Publikoko Zuzendaritzara gutxienez hurrengo zazpi egunetarako aurreikuspen meteorologikoa. Alerta egoera determinaturik geratuko da, Euskalmetek, ikuspegi meteorologikotik begiratuta, EAEko lurraldea zatitua dagoen lau guneeetako bakoitzerako ezartzen dituen tenperatura atalaseen arabera.

1.2.- Erikortasunaren zainketa urgentzietako atentzioari eta ospitale ingresuei buruzko informazioaren bitartez. Atenditutako kasu guztien informazioa jasoko da, batez ere gehiegizko tenperaturari egotzi dakioken pazienteei eta/edo hildakoei buruzkoa.

1.3.- Heriotza tasen zainketa, EAEko ehorztetxeetako informazioaren bitartez.

1.4.- Osasun publikoaren zainketa: elikagaiekin eta kontsumo urarekin erlazionaturiko agerraldiak eta alertak.

2.- Komunikazio eta informazio sistema

2.1.- Populazioarentzako informazioa beroak eragindako osasun arazoei aurre egiteko neurrien gainean. Informazio hau populazio kategorია desberdinei eta balizko bero bolada bati aurre egiteko erantzun maila desberdinei egokitua izango da: prentsa, irratia, telebista, internet. Prebentzio mezu hauek buletin meteorologikoetan ere zabalduko dira.

2.2.- Pertsonal sanitarioarentzako informazioa honako puntu hauei buruz: arrisku faktoreak, bero boladaren kasuko patologiak, medikamentuen zainketa eta prebentzioari dagokionez kontuan eduki beharreko jokabideak.

2.3.- Gehiegizko tenperaturen etorrerari buruzko alerta.

3.- Jokabide sektorialak

3.1.- Atentzio sanitarioko zerbitzuak sendotzea beharrezko den leku eta kasuetan.

3.2.- Pertsonal sanitarioak bere pazienteak edo hauen senideak informaruko ditu gehiegizko tenperaturekin elkarturiko patologiak prebenitzeko hartu behar diren arretazko neurriei buruz. Era berean, medikamentuak hartzeko eta kontserbatzeko erari buruzko informazioa emango du.

3.3.- Elikagaien banaketa zentro nagusien eta hotz katearen mantenimenduaren zainketa.